



Gorka Zozia - @zotz_
Kimikaria

Orekak ez du balio

Beti izan naiz prekauzio printzipioaren aldekoa mugikorren erradiazioei dagokienez. Gero sake-lakoak beti sakelan daramanetakoa ere bai, bai-ta telefonía antenadun eraikin batean etxebizitza hartzen dutenetakoa ere! Baina bai, arreta jartzen diot gaiari, karreran bi urte uhin elektro-magnetikoak-materia harreman ezkutua ikasten eman os-tean, ez baitiot tankera onik hartzen honi guztiari. Arreta deitu dit, adibidez, duela aste pare bat AEBetan argitara eman duten ikerketak. Heldu den urtean argitaratuko den lan baten zatia besterik ez da, eta emaitzak ere ez omen dira oso sendoak, baina bi urtez erradiazio dosi ezberdinen pean izan dituzten sagu eta arratoietan garuneko eta bihotzeko minbizi arraro bi antzeman dira. Erantzun gabeko galdera asko daude eta liteke-ena da halabeharrezko harreman hutsa izatea erradiazioaren eta minbiziaren artekoa, baina kezkarria denik ezin uka. Iker-tzen jarraituko dutela adierazi dute, eta ziur aski, gu guztiok ere ikergai izan gintezke, errauskailuarekin gipuzkoarrekin egin nahi duten bezalaxe...

Baina tira, zer esango dut nik tabakoa kaltegarria dela nabar-mena denean erretzen jarraitzen dudan horietakoa banaiz? Egiari zor, azkenaldian askoz gehiago kezkatzen nau mugiko-rrren bidez sortzen ari garen kultura berriak nire osasun menta-lean izan dezakeen eraginak, mugikorrak nire osasun fisikoan uztean duen orbanak baino! Are, sortzen ari den jendarte mo-tak ernegatzen nau, elkar harremantzeko teknologiek nola –eta zein arin– aldatu dituzten –eta ari diren– elkar harremantzeko moduak. Hamaika adibide eman daitezke adin eta belaunaldi ezberdinetakoek hautematen ahal ditugun aldaketak deskriba-tzeko. Eztei bidaia Donostiara egiten zuten aitona-amonentzat zer ote da distantziako harreman bat? Zer telefono mugikorra etxetik etxera deitzen ohiturikoentzat? Zer *guatxapa* posta elektronikoko mezuak bidaltzen hasi ziren horientzat?

Nik neuk, antolaketa eremuan nozitzen dut okerren kultura aldaketa hau: lehen markoak ziren tokian –askotan inora ez zihoazen bilerak, bai, baina gutxienez hainbat lagun une batez

gauza bat lantzeko biltzen ziren lekuak– gaur *guatxap* taldeak daude. Ekimen bat egin nahi duzula? Sortu *guatxap* talde bat eta (gehienetan) utzi denboran usteltzen. Zenbat hilabete pasa daitezke lagun arteko bazkari bat antolatzeko *guatxap* taldea sortu eta azkenean egin arte? Zenbat aldiz atzeratzen da aurre-ra bilera bat *guatxapez* behin eta berriz –eta askotan egunean bertan!– bertan behera utzi ostean? Zenbat bileratan egon dai-teke une berean? Eta *guatxap* esaten dut, egun nagusi delako, baina komunikazio asinkrono itzel horretaz ari naiz, lepoa ma-kurtzera eramaten gaituen biziera horretaz. Zalantzarik ez tres-na interesgarriak direla gauza askotarako, baina biziki kurio-soa eta ilustratiboa egiten zait “mobilek” finean eragiten duten “immobilismoa”.

Eta bai, urrunegi noa, eta beste faktore asko alboratzen nabil, baina agerikoa dena da elkar harremantzeko moduak aldatzeak zuzenean eragiten diola denen artean sortzen dugun jendarte-ari. Adibidez, ez dugulako elkar ulertzen. Nork ez du gurasoe-kin (edo lagunekin) *guatxapean* gaizki-ulerturik izan? Kodigo diferentzia bortitza ari da ematen informazioaren eta komuni-kazioaren teknologien gainean eta horrek belaualdien arteko komunikazioan murruek besterik ez ditu eraikitzen. Emozioen elkartrukea jasaten ari den aldaketa bereziki nabarmena eta kezkarria da, enpatia arazo handiak identifikatzen ari direla-rik. Batzuek «afektuaren kapitalismoaz» ere mintzo dira, sare sozialak afektuen banku gisa hartuz gero, bertan gure intimita-te dosiak diru lez sartzen goazela ulertzen ahal baita, kontu ez-berdinak izatea bezala, gure identitate anitzen erakusle. Anaba-sa horretan guztian, maiz pentsatu izan dut oreka bat “helduko dela” noizbait. Halako informazioaren eta komunikazioaren teknologia definitibo bat, edo behintzat kontsentsu handi bat... baina ez dakit oreka horrek balioko digun. Guk geuk baina ho-beto ezagutzen dute gure burua ikusmira epe ertain eta luzean duten Google eta enparauek eta oreka ezartzekotan, eurena izango da; lurrean harrapatuko gaitu. Hitz egin dezagun gai haez eta joan gaitezen komunikazio kontsentsu berriak erai-kitzen, prekauzioz bada ere, makurtzera jo ez dezagun! •

